

UDAKO JARDUERAK 2025 IZENA EMATEKO ORRIA

Aurtengo udako oporretarako herriko haur eta gaztetxoei zuzendutako **Udako Jarduerak** antolatuko ditu Zaldibiako Udalak, herrian bertan euskarazko aisialdia sustatzea helburuarekin. Jarduera hauetan 2 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek eta 12-15 urte arteko gaztetxoek parte har dezakete. **Ekainaren 30etik uztailaren 24ra** izango dira aurtan, astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Aurtengo edizioan ordainketa sistema aldatu egin da, Udako Jardueren matrikula bateratuz. Orain arte, zatika ordaintzen ziren Udako Jarduerak: lehenengo matrikula eta ondoren, irteerak. **Orain, ordea, kuota bakarra ezarri da eta horren barnean sartzen dira matrikula eta gainerako jarduera eta irteera gastu guztiak.** HH eta LH-ko haurrek 90€ ordainduko dute eta DBH-ko gaztetxoek 110€. Dena dela, **hobari sistema zabala aurreikusi da**, egoera zaurgarrian dauden edo beharra duten familiek kuota hori ordaintzeko arazorik izan ez dezaten.

Hobariak bi motakoak izango dira. Batetik, errentaren araberakoak, lanbide arteko gutxieneko soldata kontutan hartuta, eta bestetik, familia ugariantzat hobariak. Horrez gain, kasu bereziak Gizarte Zerbitzuetan aztertuko dira.

Ordainketa egiterakoan ere bada aldaketarik. **Izan ere, aurtan ordainketa ez da momentuan egin beharko.** Izena ematerakoan, kontu zenbakia zehaztu beharko da izen-emate orrian, eta ekainean helbideratuko da kobrantza orokorra. Hobariak edota kasu bereziak banan-banan aztertuko dira, eta kobrantza egin aurretik jakinaraziko zaio familia bakoitzari zenbateko kuota ordaindu behar duen.

Udako Jardueretan parte hartu nahi dutenek, ohar honekin batera bidaltzen dizuegun izen-emate orria bete eta Kultur Etxera eraman beharko dute. **Izena emateko azken eguna: apirilak 11, ostirala.**

Izena ematen duten haurren familiekin bilera egingo da ekainean, eta begiraleen aurkezpena egiteaz gain, programazioaren azalpen orokorra azalduko da bertan.

UDAKO JARDUERAK 2025

IZENA EMATEKO ORRIA

HAURRARI BURUZKO DATUAK				
IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	JAIOTEGUNA	MAILA

GURASOEN EDO TUTOREEN DATUAK		
IZENA	1.ABIZENA	2.ABIZENA
TELEFONO ZENBAKIA	HELBIDEA	E-POSTA
IZENA	1.ABIZENA	2.ABIZENA
TELEFONO ZENBAKIA	HELBIDEA	E-POSTA

ORDAINKETA DATUAK		
Banketxeko kontu zenbakia	Titularra eta NAN-a	
ES		
Hobaria eskatu nahi duzu (markatu erantzuna)	BAI	EZ

HAURRAREN OSASUNARI BURUZKO DATUAK	
Gaixotasunik edo alergiairik? (Bai/Ez)	
Sendagairik hartzen du? Zenbatero?	
Haurrak ba al daki igerian? (Bai/Ez)	
Kontuan hartu beharreko beste gairik?	

UDAKO JARDUERAK 2025 IZENA EMATEKO ORRIA

GURASOEN BAIMEN ORRIA

GURASO/TUTOREAREN DATUAK: _____

HAURRAREN DATUAK: _____

Baimena emanaz gero markatu:

- ☐ 2025eko Udako Jardueretan Zaldibiako inguruetara egingo diren irteeretan nire seme-alabak parte hartzeko baimena ematen dut.

- ☐ 2025eko Udako Jardueretan aterako diren argazki eta grabazioetan nire seme-alaba agertzeko, eta horiek 'Zaldibia.eus' eta 'Zaldibia.org' webguneetan edo udal argitalpenetan publikatzeko baimena ematen dut.

Zaldibian, 2025eko _____ren _____ean

SINADURA